

KALITATE, LANEKO SEGURITATE ETA OSASUN, INGURUMEN ETA ERANTZUNKIZUN SOZIALAREN POLITIKA

Eika S.Coop.eko Zuzendaritzak, BEZEROARENGANAKO orientazioa, PERTSONEN gogobetetzea eta INGURUMENAREN errespetua eta babesa ditu bere kudeaketaren ezinbesteko helbututzat.

Horretarako, politika hau zehazten du, Gestio Sistema Bateratu baten diseinu eta ezarpenaren bitartez (GSB), arau hauen ondoriozko eskakizunak modu eraginkorran betetzeko:

- UNE-EN-ISO-9001 arauak eskatutako bañdintzak beteko dituen KALITATEAREN GESTIO SISTEMA,
- ISO 45001 arauan oinarritutako LANEKO SEGURITATE ETA OSASUNAREN GESTIO SISTEMA
- UNE-EN-ISO 14001 arauan oinarritutako INGURUMENAREN GESTIO SISTEMA
- SR 10 arauan oinarritutako ERANTZUNKIZUN SOZIALARN GESTIO SISTEMA

Politika hau zehaztuta, zabaldua eta ezarrita, erakunde osoak ulertzeaz gain, Zuzendaritzak hau espero du:

1. Barneko zein kanpoko bezeroen eskaerak etengabe asetzea: horrek esan nahi du, egiten eta merkaturatzen ditugun produktuak egokiak izatea erabileraren, ezaugarrien, segurtasunaren eta fidagarritasunaren aldetik, ahalik eta kostu txikiena eraginda eta zerbitzu eta kalitaterik handiena eskainita.

2. Kalitate, Laneko Seguritate eta Osasuna, Ingurumena eta Erantzunkizun Sozialaren ikuspegitik legeek eta arauak ezartzen dituzten eskakizunak betetzea, baita erakundeak onartutako beste baldintza batzuk ere.

3. Produktuak, prozesuak eta zerbitzuak segurtasunez diseinatzea eta fabrikatzea, pertsonen osasuna zainduta eta Ingurumena errespetatuta, eta osasunari, segurtasunari edo ingurumenaren kutsadurari lotutako arriskuak identifikatu, kontrolatu eta haien aurka prebentzio neurriak hartzea eta arriskuak minimizatzea.

4. Kalitatea, Laneko Seguritate eta Osasuna eta Ingurumenaren errespetua "egin", "fabrikatu" egiten da gestio prozesu bakoitzean, lanpostu bakoitzean eta, beraz, **langile guztion** erantzukizuna da, zuzendaritzaren gidaritzapean. Horrek Eika S. Coop.eko kide guztion **Elkarlana, Konpromisoa eta Parte hartzea** eskatzen du.

5. Eika S. Coop.ek etengabeko hobekuntzaren alde egiten du, eta horretarako. GSBren gestioari lehentasuna emango zaio eta Antolakuntzaren etengabeko hobekuntzarako bide bat izango da; horrenbestez, prozedurak, bezeroen eskakizunak eta arauzko betebeharrak uka ezinezko betekizunak izango dira langile guztiontzat.. Zuzendaritzak ezarritako bideen bitartez lortzen diren emaitzen berri langile guztiei emateko konpromisoa hartzen du, eta Laneko Seguritate eta Osasunari buruzko dagozkion kontsultak egitera ere.

6. Gure gestio katearen zati diren heinean, hornitzaileak inplikatzeko gure prozedurak aplikatu ditzaten, geuk ere gure bezeroen prozeduretan parte hartzen dugu eta.

Horrenbestez, adierazitako helburuekin, ZUZENDARITZA honek KONPROMISOA hartzen du POLITIKA hau bultzatu, indartu eta betetzeko beharrezkoak diren baliabideez hornitzeko, baita MERKATUAK, PERTSONEK eta INGURUAK duten bilakaerara egokitze ere.

SINATUTA:



Zuzendari Orokorra
Aitor Soria
05/03/2018

